

# HEZKUNTZA PROGRAMA: ESKOLA-BARATZE EKOLOGIKOA



*“...Beraz, batek bere lorategia landatzen du, eta bere arima apaindu, itxaron gabe beste batek loreak ekar diezazkion....”.* Jorge Luis Borges

*“Hezkuntzan, behar-beharrezkoa da naturarekin harremanetan egotea”.* Heike Freire

*“Haurren esperientziek elikatu beharko lukete eskola”* Francesco Tonucci

## **AURKIBIDEA**

### **1. SARRERA**

### **2. HELBURUAK**

### **3. METODOLOGIA**

### **4. BALIABIDEAK**

**4.1. Lanabes-kutxa: ingurumen-hezkuntzako haziak**

**4.2. Giza baliabideak**

**4.3. Baliabide material eta ekonomikoak**

### **5. KONPROMISOAK**

### **6. PRESTAKUNTZA**

### **7. EBALUAZIOA**

### **8. NOLA PARTE HARTU?**

**8.1. Nori zuzendua:**

**8.2. Eskabideak**

**8.3. Hautaketa**

### **9. ERANSKINAK**

## 1. SARRERA

Hamarkada batzuetan zehar baratze-lurrak murriztu eta utzi ondoren, baratze berriak agertzen hasteak hiriko paisaia aberasten du, eta barazkiz elikatzen gaitu, baina baita baratzeek gordetzen duten jakinduria herrikoiaz ere, zeinak, gainera, aukera berriak irekitzen baititu elikadura-burujabetasunerako bidean.

Hiri-baratzeak ugaritzen ari dira, ekimen pribatu zein kolektibo gisa, eta Iruñean ere oihartzuna lortzen ari dira tankera horretako ekimenak. Hiri-baratzeen goranzko joeran badu zerikusirik hezkuntza-komunitateak egindako lanak, bere ekimenez abiatu baitu eskola-baratze ekologikoa, diziplina anitzeko hezkuntza-baliabide integratzaile gisa.

Horiek horrela, hiri-baratze zein eskola-baratzeen ugaritzearen sinergiak baliatuta, Hiri Ekologiako eta Mugikortasun Jasangarriko Alorrak bere ildo estrategikoetan jaso du **eskola-baratzeak finkatzea Iruñeko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan**. Horretarako, giza baliabideak eta baliabide ekonomiko zein materialak bideratuko dira halako hezkuntza-baliabide baliagarria curriculumean aplikatzeari bide emateko.

Baliabide didaktikoen atalean jasotako jarduerak zentzu horretarantz bideratuta daude, eskola-baratzeak sortzea lagunduz eta babestuz, eta xede hartuta eskola-baratzea ikasgune bihurtzea, gizarteaz, zientziaz, arteaz, teknologiaz, gastronomiaz, kulturaz eta abarrez ikasteko, eta halako toki bat izatea non partekatzen eta gozaten ahalko baitira esperientziak eta balio etikoak, giza balioak, ingurumenekoak, osasun arlokoak, etab. Hala, helburua da baratzea izatea ikasleen eta ingurumen naturalaren arteko harreman positiboa sustatuko duen elementua, hori baita **ingurumen-hezkuntzaren** oinarritzko abiapuntua.

Azken batean, eskola-baratzeek ingurunearen zein pertsonen osasuna lantzen lagundu nahi dute, horretarako eraikiz **elikadura osasungarriarekin eta hurbileko elikadurarekin zuzeneko harremanetarako gune bat**. Jarduketa hori Iruñeko Udalak 2016an hartu zuen konpromisoaren hazietako bat da, orduan egin baitzuen bat **Milango Ituna** izenarekin ezagutzen den Hiriko Elikadura Politikako Itunarekin, xede hartuta Tokiko Elikadura Sistema bidezkoago eta jasangarriago bat eraikitzea, gizarte, ingurumena eta ekonomia eraldatu eta hobetzeko tresna gisa.

## 2. HELBURUAK

Programa honen **helburu nagusia** da **ingurumen-hezkuntzako** haziak landatzea, norbanakoengan zein taldean aldaketak eragingo dituztenak gizarte jasangarriago baten alde aurrera egiteko.

Eskola-baratzeak, gainera, beste helburu batzuk bilatzen ditu, besteak beste, hauek:

- Askotariko **ezagumenduen ikasketa-ikasgela** eskaintzea.
- **Ikasketa esanguratsua** erraztea eskola-baratzean izandako esperientzien eta bizipenen bitartez.

- **Esperientziak eta balio** etikoak, giza-balioak, ingurumenekoak, osasunekoak eta abar partekatzea.
- Hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea sustatzea.
- Eskolako patioak atseginago egitea eta naturalizatzea.
- Elikadura osasungarria eta hurbilekoa sustatzea.

### 3. METODOLOGIA

Hezkuntza-proiektu honek funtsezko bi zutabe ditu:

1. **Baratze ekologiko bat martxan jartzea (sortu berria zein biziberritua):** Baratzearen planteamendua, diseinua, sormena eta mantentze-lanak hezkuntza-komunitate osoak egingo ditu (ikasleek, familiarek, irakasleek, ikastetxeko langileek...), **modu kolektibo eta partizipatiboan**.
2. **Curriculumean sartzea:** baratzea ikasteko gune gisa ulertuta, curriculumean txertatu nahi ditugu baratzearekin lotuta egin daitezkeen diziplina anitzeko jarduera didaktiko askotarikoak. Horretarako, 25 jarduera jasotzen dituen **proposamen didaktiko** bat (ikus 6.1. atala) eskaintzen da. Arrakasta lortzen duten jarduerak eskola-curriculumean txertatuko dira, eta ikasturte bakoitzean, jarduera garatu ondoren, haien inguruko **ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak** egingo ditugu.

Eskola-baratzea sortu eta aipatu jarduera horiek curriculumean txertatze aldera, **hezkuntza-komunitatea trebatzeari** emango diogu bultzada, eta sustatuko dugu, orobat, baratze ekologikoaren proiektua **Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan** sartzea.

Jarduketa horietarako lan-**metodologia** dinamikoa eta malgua izango da, betiere ikastetxeen **ezaugarri** eta funtzionamenduen araberakoa. Edozein kasutan, badira **irizpide** batzuk jarduketa guztietan, edo ia guztietan, kontuan hartu eta txertatu behar direnak, erabilitako metodologia gorabehera. Hona irizpide horiek:

1. **Metodologia partizipatiboak** sustatzea, halakoak non parte hartzen duten pertsonen gizarteratzea sustatzen duten, eta aldi berean ikaskuntza kolektiboa sustatzen duten, **ikaskuntza kolektiboa** eta **ezagutzaren eraikuntza** bultzatuta.
2. **Ingurumen-jasangarriko irizpideak** txertatzea jardueretan, hartara ingurumenarekiko errespetuzko jarrerak sustatzeko.
3. **Genero-berdintasuneko** irizpideak txertatzea: prestatutako material eta dinamiketan rolen estereotipoetan arreta berezia jarrita eta emakumeen garrantzia azpimarratuta hala elikagaiak hazi eta prestatzeko lanetan nola baratzearen eta haziak zaintzeko lanen inguruko ezagutza-transmisioan.
4. **Dibertsitatea zaintzea, errespetatzea eta bultzatzea** maila guztietan, aberastasun-iturri den aldetik.

5. **Sormena bultzatzea** hazteko eta norbera eta gizartea ahalduntzeko tresna gisa, bai eta ideiak sortu era eraldatzeko oinarri gisa ere.
6. **Ikuspegi sistemikoa** baliatzea, hartara pentsamendu murriztaileak gainditu eta jarduketei zeharkako ikuspuntu integralen bitartez heltzeko.
7. Jardueren **etengabeko ebaluazioa** egiteko **metodoak** baliatzea, betiere jardueren ezaugarriak aintzat hartuta eta hobetzeko proposamenei begira.

## 4. RECURSOS

Proiektua abiatu eta garatze aldera, eskuragarri jarriko dira hainbat baliabide didaktiko, ekonomiko eta material.

### 4.1. Lanabes-kutxa: ingurumen-hezkuntzako haziak

**Lanabes-kutxa** hau hazi-multzo gisa sortzen da, eta Haur zein Lehen Hezkuntzako irakasleei eskaintzen zaie hautatu, eredu, zaindu eta uzta jasotzeko, horrela ikasleak eta bere burua elikatuz. Hortaz, lanabes-kutxa honek bermatuko du eskola-baratzea **ingurumeneko hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako hazia izatea, ikasle zein irakasleen hezkuntza elikatzeko, hiri jasangarriago bateranzko bidean.**

Lanabes-kutxak bi atal ditu:

1. Lehen atalean definitu eta deskribatzen dira **eskola-baratzea martxan jarri eta mantentzeko oinarriko ekintzak**: baratze-lanak, konpostajea eta baratzearen inguruan egiten denari buruzko informazio zein komunikazioa. Ekintza horien bidez egingo du aurrera eskola-baratzeak eta, hortaz, hezkuntza-komunitate osoak hartuko du parte haren garapenean. Ikastetxe bakoitzak bere antolaketa adostu beharko du hiru zutabe hauek ezarri eta finkatzeko.
2. Bigarren atalean proposamen didaktikoa dago, eta bertan Haur zein Lehen Hezkuntzako **irakasleendako jarduerak** jasotzen dira. Irakasleek hautatu eta garatzen ahalko dituzte jarduera horiek edota horien ondorio direnak, eta eskola-curriculumean txertatuko dira, horren barnean hartuz hala baratzea nola ingurumen-hezkuntza. Jarduera hauek honako atalak izango dituzte: Ezagutza-arloak, Hezkuntza-etapa, Gaitasunak, Iraupena, Helburuak, Egutegia, Garapena, Baliabide materialak eta Argibide gehigarriak.

Lanabes-kutxa hau lurra bezalakoa da, bizia eta malgua, esperimendazio eta apaltasunetik ikaskuntza laguntzeko prest, aldaketa eta hobekuntzetarako proposamen berriei irekita, eskola-baratzeak lora daitezten eta ingurumen-hezkuntzaren haziak eman ditzaten, horiek beste eskola-baratze batzuetan hedatu eta erretzearen.

#### 4.2. Giza baliabideak

Iruñeko Udalak **Ingurumen Hezkuntzako Lantaldea** jarriko du proiektuan laguntza eman dezan, laguntza-teknikoko zereginetan. Hasieran, lantaldeak proiektua bultzatu eta proiektuaren esparruan egiten diren jardueri babesa emango die. Ikastetxeak proiektua bereganatzen duen neurrian, laguntza hori gutxitzen joango da ikastetxea erabat autonomo izan arte, betiere lantaldea unean uneko zalantzak argitu eta laguntza emateko erreferente izango delarik.

Hala ere, eskola-baratze ekologikoen hezkuntza-proiektuak hainbat erakunderen arteko **elkarlana** eskatzen du:

- **Ikastetxea:** ikastetxea ordezkaturiko duen **talde eragile** bat (pertsonek bat hezkuntza-ziklo bakoitzeko) egon behar da, proiektuaren buru gisa aritzeko, eta, aldi berean, hezkuntza-komunitatea mugiarazteko.
- **Iruñeko Udala:** zenbait alorrek hartu behar dute parte, unean-unean eta jarduketan arabera. Hiri Ekologiako eta Mugikortasun Jasangarriko Alorreko Ingurumen Hezkuntzako lantaldearekin batera lan egingo dugu batez ere, lantalde hori arituko baita laguntzen prozesu osoan zehar. Baliteke uneren batean Hiri Bizigarri eta Etxebizitzako Alorrarekin ere elkarlanean aritu behar izatea.
- **Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua:** Udala Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean ari da Eskola Jasangarrien Sarean parte hartu ahal izateko eta irakasleek ikastetxeetan jasotako prestakuntza akreditatzeko.
- **Beste batzuk:** aurreikusita dago elkarlanean aritzea ezagutza edo bestelako baliabideen bitartez proiektuan ekarpenak egin ditzaketen beste erakunde batzuekin, esate baterako, Iruñerriko Mankomunitatearekin.

Ikastetxean bertan, prozesua zuzen garatzeko ezinbestekoak dira:

- **Talde eragile bat** osatzea, batez ere irakasleek osatua; bertan hezkuntza-etapa guztiek eta zuzendaritza-taldeak egon beharko dute ordezkaturik. Talde horrek mugiarazi behar ditu hezkuntza-komunitateko gainerako kideak, hala partaidetza bultzatzeko nola bestelako jarduketei begira.
- Talde eragileko **irakasle** batek eskola-baratzearen **koordinazio**-lanak egitea; hori izango da erreferentziatzeko pertsona ikastetxean eta Ingurumen Hezkuntzako Lantaldearekiko harremanetarako. Gomendatzen da bere lanaldiaren parte bat horretan ematea.

#### 4.3. Baliabide material eta ekonomikoak

Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak beharrezko kudeaketa-lanak egingo ditu ikastetxeek baliatu ditzaten Udalak dituen baliabide ekonomiko eta materialak eskola-baratzeko proiekturako: konposta, hartxintzar ofitikoak, egur xehatua eta zuhaixka zein landare usaintsuko modalitate batzuk.

## 5. KONPROMISOAK

Iruñeko eskola-baratzen proiektua arrakastatsua izan dadin inplikaturako aldean konpromisoa –Iruñeko Udalarena eta ikastetxeena– ezinbestekoa da. Nork bere aldetik, konpromiso hauek hartuko dituzte bere gain:

Ingurumen Hezkuntzako Lantaldearen konpromisoak	Ikastetxearen konpromisoak
<ol style="list-style-type: none"> <li><b>Proiektuan laguntzea:</b> Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak (IHL) konpromisoa hartzen du <b>proiektuan laguntzaile gisa aritzeko</b> proiektua abiatzean laguntza teknikoa eta babesa emanaz. Laguntza hori bide hauen bitartez emango da: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ IHLren telefonoa: 948 420 984</li> <li>○ IHLren posta elektronikoa: <a href="mailto:educacionambiental@pamplona.es">educacionambiental@pamplona.es</a></li> <li>○ Lantaldearen bisita ikastetxera, hamabost egunean behin: bilerak talde eragilearekin eta irakasleekin –kontu zehatzak argitzeko–, baratzearen bisita...</li> </ul> </li> <li><b>Programa etengabe berrikustea eta beharrezko aldaketak egitea programa etengabe hobetzeko:</b> IHLk konpromiso hori hartzen du etorkizunean beste ikastetxe batzuekin partekatu ahal izateko programa honen esperientzia. Irakasleen lana (ikusitako ikastetxearen konpromisoak) ezinbestekoa da programa aberasgarria izan dadin eta datozen ikasturteetan beste ikastetxe batzuekin partekatu ahal izateko.</li> <li><b>Baliabide ekonomiko zein materialez</b> hornitzen laguntzea eskola-baratzea sortu eta mantentzeko.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li><b>Irakasle guztiak inplikatzeko:</b> irakasle guztien inplikazioa behar beharrezkoa da ikastetxeko proiektu bat izango bada. Irakasle guztiek egin behar dute proiektuari buruzko <b>prestakuntza</b> eta curriculumean txertatu, gutxienez, baratzearekin loturiko jarduerak.</li> <li><b>Proiektuan 3 ikasturte egoteko konpromisoa.</b></li> <li><b>Irakasleen talde eragile</b> bat eratzea; talde hori Ingurumen Hezkuntzako lantaldearekin hamabost egunean behin elkartuko da proiektuaren lehenengo urtean. Bigarren urtetik aurrera bilerak hilabeteetan behin izango dira. Talde eragileak bertako pertsona bat izendatuko du proiektua koordinatzeko.</li> <li><b>Proposatutako jardueren % 70 egitea</b> programak ikastetxeko proiektu batek behar duen kalitatea erdiesteko. Ikasmaita guztiek hartu behar dute parte jardueretan.</li> <li><b>Ebaluazioa:</b> alde batetik, irakasleek jarduerak ebaluatuko dituzte egin ostean. Horrez gain, hiruhilekoan behin ebaluazio-saio bat egingo dute Lantaldeak eta irakasleek (lehen bi hiruhilekoetan talde eragilearekin, eta</li> </ol>

hirugarrenean, ikastetxeko irakasle guztiekin).

6. **Hezkuntza-komunitate osoa sartzea proiektuan:** familiek, irakasleek, ikastetxeko bestelako langileek, eta abarrek proiektuan parte hartzea funtsezko zutabea da proiektu honetan.
7. **Proiektua eskola-curriculumean txertatzea,** haren jarraipena bermatzeko eta baratzea ikastetxean finkatzeko.
8. **Dokumentazioa:** proiektuaren inguruan egiten diren jarduketak agirietan jaso beharko dira (testuak, irudiak, etab.). Erregistro hori baliagarri izango da proiektuaren garapenaren adierazle gisa; horretaz gain, material interesgarria izango da irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako. Gainera, **memoria pedagogiko** bat emango da, non zehaztuko baitira ikasleekin baratzea ardatz hartuta egindako jarduerak eta horiek nola sartu diren curriculumean.



## 6. PRESTAKUNTZA

IHLk prestakuntza egingo du irakasleekin, programari lotutako zenbait gairekin, eta klaustro osoak egin beharko du. Prestakuntza aldatuko da urtero programa honen akonpainamenduak irauten duen hiru urteetan. Prestakuntza hori Lantaldeak antolatuko du eta Lantaldeak berak edota beste entitateekin elkarlanean eskainiko du. Hezkuntza Departamentuarekin koordinatuta egingo da, prestakuntza hori ofizialki akreditatu ahal izateko.

## 7. EBALUAZIOA

Programa etengabe ebaluatzen da, eta horrela, etengabe ari gara hobekuntza txertatzen.

Ebaluazioa ekintza ezberdinen bidez gauzatuko da:

- Bilerak, hiruhilekoan behin, Lantaldearen eta ikastetxeko talde eragilearen artean.
- Ikasturte amaierako balorazio-jardunaldia, irakasle guztiekin.
- Ingurumen Hezkuntzako Lantaldearen aldizkako bisitak ikastetxera.
- Lantaldeak ikasturtean zehar jasotzen dituen iradokizun eta ekarpenak (posta elektronikoz, telefonoz edo aurrez aurreko bisitetan).
- Iruñeko Eskola Baratzeen Sarearen topaketa

## 8. NOLA PARTE HARTU?

### 8.1. Nori zuzendua:

Programa hau Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta dago, betiere Eskola Kontseiluan onetsi badute programa honetan parte hartzea.

### 8.2. Eskabideak

Programan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea martxoaren 13an hasi eta apirilaren 15an amaituko da, 14:00etan.

Izena emateko orriak helbide honetara bidali beharko dira: [educacionambiental@pamplona.es](mailto:educacionambiental@pamplona.es)

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

- Izena emateko fitxa (I. eranskina)
- Proiektua Eskola Kontseiluan onetsi dela erakusten duen egiaztagiriaren kopia
- Proiektua (II. eranskina)

- Ikastetxearen eskarmentua Ingurumen-hezkuntzan
- Lan-eskarmentua Hezkuntza-komunitatearekin
- Lan-proposamena

### 8.3. Hautaketak egiteko

Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak egingo du hautaketa, eta egun horretatik aurrera emaitzaren berri emango die parte hartzen duten ikastetxe guztiei.

Hona hemen **hautatzeko irizpideak**:

- Lehenetasun-hurrenkera: ikastetxe publikoak, itunduak eta pribatuak (% 20).
- Esperientzia hezkuntza-komunitatea osatzen duten proiektuetan (% 15).
- Esperientzia ingurumen-hezkuntzan (% 15)
- Lan-proposamena: curriculumean txertatzea (% 15), hezkuntza-komunitatea engaiatzea (% 15) eta ekintza-plana (% 20)

**ERANSKINAK**

**IZENA EMATEKO FITXA**

**IKASTETXEAREN DATUAK**

**IKASTETXEA:**

**POSTA HELBIDEA:**

**HEZKUNTZA-ETAPA:**

**IKASTETXE MOTA:**

**Publikoa**

**Itundua**

**Pribatua**

**HARREMANETARAKO**

**HARREMANETARAKO PERTSONA:**

**TELEFONOA:**

**E-POSTA:**

## PROIEKTUA

Proiektuan honako atal hauek sartuko dira:

### Ikastetxearen esperientzia Ingurumen-hezkuntza

### Lan-esperientzia Hezkuntza-komunitatearekin

### Lan-proposamena

- **Curriculumean sartzea:** nola sartuko da curriculumean baratzea ardatz hartuta egindako lana.
- **Hezkuntza-komunitatean txertatzea:** nola hartuko duten parte proiektuan:
- **2019-2020ko ikasturterako ekintza-plana:** Jarduketan proposamena eta denboran zehar izango duen garapena Eskola-baratze Ekologikoa proiektua martxan jarri eta garatzeko, maila pedagogikoan.  
OHARRA: Ekintza-planak bere gain hartu beharko ditu aurreikusi diren jarduketan, baina EZ BAKARRIK gai teknikoei eta logistikakoei dagokienez (materiala eskuratzea, etab.), baizik eta curriculumean txertatzeko eta hezkuntza-komunitatean sartzeko aurreikusitakoak ere.

Proiektuak 5 orriko luzera izango du, gehienez ere, bi aldeetatik idatzita.